

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuak funtziona dezan, elementu garrantzitsuak erabili beharko ditugu. Hasteko, enpresa orok bere funtsezko baliabideak behar ditu, bezeroengana iristeko, diru-sarrera sortzeko, balio proposameneko eskaintza garatzeko...

Gure kasuan, funtsezko baliabide guztiak beharko ditugu; baliabide intelektualak giza baliabideak baliabide fisikoak eta finantza baliabideak. Horretaz gain, proiektua aurrera eramateko bakoitzak dituen abileziak funtsezkoak izango dira.

Lehenik eta behin, baliabide intelektualak eta giza baliabideak; aplikazioaren sormena, informatikako eta aplikazioa diseintzako ezagutzak eta salmentetarako eta antolaketarako abilezi berriak. Ondoren, baliabide fisikoak; ordenagailua, telefonoa eta diseinuak egiteko materiala. Azkenik, finantza baliabideak; inbertsioa egiteko diru kopurua.